

# EL KAR TE AK

**Irabazi asmorik gabeko elkarteak zutabe garrantzitsua dira kooperatiban, Ekhillurren apustueta bat auzo, herri eta hirietako gizarte-sarea dinamizatzen laguntzea baita.**

Ekhillurren barruan elkarte bat izateak esan nahi du kooperatibaren erabiltzaile orok elkarte hori aukeratzeko duena, hilero bere batez besteko saldoaren %0,5 emango diola Ekhi puntuetan eta eurotan. Elkarteak, era berean, Ekhi puntuen bidez jasoko ditu kopuru horiek, eta sareko enpresa eta dendetan gastatu ahal izango ditu, baina ezin izango ditu euroekin trukatu.

Kooperatiban elkarte gisa alta emateko, gure webguneko "Bazkidetu!" ataleko inskripzio-formularioa bete behar da, eta 50 €-ko ekarpena egin behar zaio kooperatibaren kapital sozialari, baja emanaz gero berreskuratu daitezke (itzultzeko baldintzak estatutuetan definituta daude). Eskaera onartu ondoren, ekhilur.eus webgunetik kontu bat aktibatzea besterik ez da falta. Kontu honen mantentze-kostua 7,50 € + BEZa izango da 6 hilean behin.

Kontua kreditu- edo zordunketa-txartel batekin kargatu ahal izango duzu ekhilur.eus webgunearen bidez, 50 €-tik hasita, edo sareko dendetan, edozein zenbatekotik aurrera. Era batera edo bestera, kargatzeak ez du inolako kosturik.

**Gainera, elkarteek hileko batez besteko saldoaren %0,5 emango diote kooperatibari Ekhi puntuetan.**